

# Osoko bilkura

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan

2015eko azaroaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Aleman, Sagrario, diruzaina,  
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,  
Goenaga, Patxi,  
Lakarra, Joseba,  
Sagarna, Andoni,  
Toledo, Ana,  
Uribarren, Patxi,  
Zabaleta, Patxi eta  
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso eta  
Osa, Erramun,  
zegozkien gaietan.

## **Ezin etorria adierazi dutenak:**

Miren Azkarate, Jean-Baptiste *Battitu* Coyos, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen eta Xarles Videgain.

**Ahalak:** Adolfo Arejitak ahala Xabier Kintanari, iritsi bitartean; Andres Iñigok ahala Patxi Zabaletari; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutia-

ri; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari.

Osoko bilkura Bilbon, egoitzan hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren azaroko Osoko batzarrari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak Osoko bilkura, 11:30ean eten egingo dela gogorarazi du, «Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboaren funtsak. Webguneko katalogoa» euskaltzainei eta hedabideei aurkezteko. Euskaltzainek ondoren, Osoko bilkurarekin jarraituko dute.

### 1. Osoko bilkurako (2015-10-30) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Idazkaritzara aurretiaz ez da oharririk iritsi. A. Urrutia euskaltzainburuak norbaitek Osoko bilkuran oharririk egin nahi duen galdetuta, inork ez du iruzkinik egin; beraz, akta ontzat eman da.

### 2. *Hiztegi Batua* 2. itzulia. ZTHB vs *Hiztegi Batua*: Matematika, Fisika eta Astronomiako zerrendak bateratzea. Aurkeztutako oharrak-eta aurkeztu, aztertu eta erabaki

Urriko Osoko bilkuran ZTHB (Matematika, Fisika eta Astronomiako zerrendak) *Hiztegi Batua* rekin bateratzeko eta kontraesanak saihesteko egindako saioaren emaitzak eta proposamenak aurkeztu zituzten bi lantaldeetako kideek. Bi zerrenda aurkeztu ziren: a) «ZTHB eta HB bateratzea» izenekoa, modu errazean eta arazo handirik gabe konpon zitezkeen formak biltzen zituena (30 forma); eta b) «ZTHB eta HB bateratzea [ohardunak]», azalpen zehatzagoak eta informazio gehigarria behar zituena (8 forma), proposamenek *Hiztegi Batuan* aldaketak ekar zitzaizkien-eta. Oharrak egiteko, azaroaren 16ra arte irekiriko aldia, inork ez die zerrenda horiei iruzkinik egin. Horiek horrela, A. Sagarna *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arduradunak, txostena prestatu duten bi lantaldeen izenean, ZTHB eta *Hiztegi Batua* bateratzeko eginiko proposamenak onartzea eskatu du. Kontrako iritzirik egon ez denez, Osoko bilkurak onartu ditu eginiko proposamenak.

*Hiztegi Batuan* egingo diren aldaketak hauek dira, besteak beste, ZTHBko zerrendetako forma konplexuen oinarri ere izango direlako kasu batzuetan. Sarrerako grafia osatu-moldatu da kasu batean (*alde-berdin* forma arautuari *aldeberdin* gehituz), sarrera berriak jaso dira (*eskaleno*, *ireki 2*, *itxi 3*, *lerro zuzen*, *oszilatorio*), lehendik baztertuak edo isilduak berreskuratu dira (*aleatorio*, *aurora*, *determinante*, *ekilatero*, *esklusio*, *handipen*, *indeterminatu*, *inklinatu*, *inklinazio*, *kondukzio*, *lagindu*, *likatasun*, *poluzio*), lehendik araututako bi forma isildu dira (*likatsutasun*, *likatasunen mesedetan*, eta *konika*, *konikoren mesedetan*). Beste hainbat kasutan azalpenak, adierak, kategoriak eta espezialitate-markak osatu edo moldatu dira (*aberrazio*, *aldekide*, *area*, *argi(-)urte*, *azalera*, *dezimal*, *distributibo*, *hamartar*, *infinitesimal*, *inflazio*, *isoszele*, *izar(-)laino*, *izar(-)multzo*, *karratu*, *koadro*, *kolapso*, *konformazio*, *koniko*, *konsstelazio*, *lika*, *minor*, *nebulosa*, *oszilatzaile*, *planetario*, *sublimatu*, *talka-uhin*, *trantsitu*). ZTHBn ere irizpide horien arabera moldatuko dira sarrerak eta barruko informazioa. Osoko bilkurara eraman ez diren hainbat forma egokitu ditu ZTHBk, lehendik *Hiztegi Batua* rekin arautuak zituena eta bat ez zetozenak, bai eta akatsak ere. Horiek arazorik gabe bateratu dira, Osoko bilkurara eramateko beharrik gabe.

Euskaltzainek egindako galderei erantzunez, hiztegiaren arduradunak esan du hiztegi berritua datorren urtean argitaratuko dela eta 40.000 hitz baino gehiago edukiko dituela. Halaber, esan du argitalpena paperean eta euskarri elektronikoa, besteak beste, mugigarrietatik-eta kontsultatzeko eran egotea aurreikusita dagoela. Era berean, idazkariordeak adierazi du Matematika, Fisika eta Astronomiako hiztegiak egokitu eta, ahalik lasterren, erabiltzaileen esku jarriko direla.

### 3. Exonomastika. «Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta izen-lagun erreferentzialak sortzeko irizpideak. Euskaltzaindiaren gomendioa». Puntu bat eranstea

A. Mujika, Exonomastika batzordearen idazkaria, bilera-aretoa sartu da. Gomendioa argitaratu aurretik, Exonomastika batzordeak puntu bat eta ohar bat eranstea proposatu du. Banatu den dokumentuan zehaztuta daude proposatutako aldaketak.

Puntu berrian, lehendik jaso gabeko kasu batzuk sartzea proposatzen da: leku-izenaren amaiera *g, j, p, q* edo *w* denean, nola osatu herritar-izena (atzizkiaren *-tar* aldaera eranstea). Onartu egin da.

Ohar berriaren helburua gomendioaren hasieran aipatzen den puntu bat amaieran berriro gogoraraztea da. Honela dio: «Berez, edozein leku-izenetatik erator daiten herritar-izena. Baina, askotan, ez da beharrezkoa, eta ohikoagoa da leku-genitiboa erabiltzea. Adibidez, *Nire laguna newyorktarra da; haren senarra, berriz, telavivtarra* esaldia zuzena eta egokia da, baina ohikoagoa da *Nire laguna New Yorkkoa da; haren senarra, berriz, Tel Avivekoa* esatea eta idaztea». Onartu egin da.

Bi aldaketa horietaz gainera, beste bi onartu dira. Batetik, M. Zalbidek adierazi du gomendioaren 8. adibidea («Nafar Gobernuak euskarazko hedabideei emandako diru-laguntzak») ez dela egokia, *nafar* hitza ez delako <LEKU-IZENA + -AR> egiturakoa. Adibide hori kentzea onartu da. Bestetik, S. Alemanek adierazi leku-izenaren amaiera *-ng* denean *-dar* aldaera proposatzea eta *-g* denean *-tar* proposatzea irizpidean konplexutasuna sartzea dela. J. Lakarrak adierazi du S. Alemanekin ados dagoela eta *-dar* aldaera dela, berez, salbuespena; alde horretatik, *-ng* amaierarako *-dar* ez erabiltzea proposatu du. Onartu egin da. Beraz, leku-izenaren amaiera *-g* zein *-ng* izan, atzizkiaren *-tar* aldaera erabiltzea onartu da.

Gomendioaren gaiari zuzenean ez badagokio ere, A. Mujikak adierazi du, bide batez, Euskaltzaindiak deklinabidea arautu zuenean ez zuela zehaztu nola jokatu behar zen kanpoko izenekin, eta, beraz, hor badagoela arautu gabeko eremu lauso

txiki bat eta jendeak hori galdetu izan duela, adibidez, itzultzaileen foroetan. Hau da, laburbildurik, gaia: adibidez, nola deklinatu *Shakespeare* izena genitiboan? Letrari erreparatuta (*Shakespeareren*) ala ahoskerari erreparatuta ([*xekspirren*]): *Shakespeare(-en)*? Eta, bestalde, nola deklinatu, adibidez, *bungalow* inesiboan? *bungallowean* ala *bungallowan*?

Erantzunetan aipatu da letrari erreparatuta deklinatzea dela ohikoena edo logikoenena (Lafitteren, La Fontaineren...), baina egia dela hori ez dagoela esplizitatuta, eta amaierako *w* letrarena ere ez. Eta komeniko litzatekeela hori argitzea. Exonomastika batzordeak horrelako kasuak eta adibideak badituenez, A. Mujikak adierazi du Exonomastika batzordeak aurrean bat egin lezakeela gaia azaltzeko, zedarritzeko eta ebazpen-zirriborro bat prestatzeko, gero Osoko bilkurara ekarri eta aztertzeko, hala, Osoko bilkurak, txostena aurrean duela, egoki deritzona erabaki dezan: onartu edo aldatu eta argitaratu, baztertu edo beste norbaiti iritzi edo ebazpen-proposamen osagarriak eskatu. Osoko bilkurak oniritzia eman dio prozedura horri.

#### 4. Euskaltzaindiaren 2016. urteko egutegia. Aurkeztutako oharra, aztertu eta erabaki.

Idazkariordeak adierazi duenez, egindako proposamenari idatziz ez zaio oharrik egin. Programa hilabetez hilabete irakurri du. Halere, A. Urrutiak oraindik aldaketa batzuk egon daitezkeela eta inork bestelako proposamen osagarririk egin nahiko balu, horretarako denbora badela esan du. A. Toledok adierazi du Literatura Ikerketa batzordeak Jose Antonio Loidi Bizkarrondo idazlearen jaiotzaren mendeurrena dela eta, omentzeko asmoa duela. J. Lakarrak, berriz, datorren urtean, Manuel Larramendi hil zela berrehun eta berrogeita hamar urte betetzen direla eta, omenaldia egitea gustatuko litzaiokeela azaldu du. E. Osak begi onez ikusi ditu proposamenak baina, ekitaldi horien antolaketa modu egokian, lurraldetasunaren ikuspegitik ahalik orekatuenean, eta era koordinatuan egiteko, horiek garaiz erabaki behar direla azpimarratu du.

M. Zalbidek zerrendan Gaizka Barandiarani buruz datorren aipua ezabatzea eskatu du. Hala egitea erabaki da Osoko bilkuran.

Horiek horrela, Euskaltzaindiaren 2016. urteko egutegia onartu da.

Horren ondoren, 11:20 direnean, «Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboaren funtsak. Webguneko katalogoa» euskaltzainei eta hedabideei aurkezteko, Osoko bilkura etetea erabaki da.

12:10 direnean Osoko bilkurari berrekin zaio.

## 5. Esku artekoak.

**5.1. Euskera agerkariari buruzko azken berriak, informazioa ematea.** 2014. urtean, bikaintasun-agiria erdiesteko asmoz, FECYT erakundeari *Euskera* agerkaria ebaluatu zezan eskatu zitzaion. Agerkariak aldizkari zientifiko baten oinarritzko ezaugarriak zituela adieraztearekin batera, bikaintasun-agiria lortzeko zer gabezia zeuzkan adierazi zuten. Horietako bat zen nazioarteko datu-base esanguratsuetan indexatua ez egotea. Arazoari aurre egiteko asmoz, *Euskera* agerkariaren Idazketa batzordeak, 2014ko apirilaren 28an, zera onartu zuen:

- Web of Science (Thompson and Reuters) datu-basean *Euskera* agerkaria integratzeko eskaria egitea. Web of Science-ren erantzuna: gai eta hizkuntza aniztasuna eta eremu geografiko zabalena biltzeko asmoz, plataforma berri bat sortu dute: Emerging Sources Citation Index (ESCI). Bertan integratu dituzte oinarritzko baldintzak betetzen dituzten aldizkari zientifikoak, tartean *Euskera*. Horrekin batera, *Euskera* agerkaria Web of Science-ko beste plataforma batzuetan (*Social Sciences Citation Index* eta *Arts & Humanities Citation Index*) txertatzea aztertuko dute.
- SCOPUS (Elsevier) datu-basean *Euskera* agerkaria integratzeko eskaria egitea. Scopus-en erantzuna: agerkaria ebaluatua izateko jarraibide etiko batzuk argitaratzea eskatu zitzaion Euskaltzaindiari. Akademiaren webgunean argitaratu ziren eta ebaluazioarekin jarraituko zutela adierazi ere. Azken berria da prozesuaren bukaeran daudela eta laster adieraziko diotela Euskaltzaindiari harturiko erabakia.

**5.2. Gaur banatuko diren liburuak.** *Euskera* (ikerketa zenbakia eta ohiko zenbakia) eta *Erlea* aldizkariaren 9. zenbakia. Harreran jaso ahal izango dituzte euskaltzainek.

## 5.3. Hurrengo bilkurak.

- Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, B. Etxepareren liburua-  
ren bertsio eleaniztun berria aurkezteko, bai eta Koldo Mitxeleneri gorazarre  
egiteko ere, ekitaldia egingo da Eusko Legebiltzarrean, goizeko 09:00etatik  
aurrera.
- Abenduaren 18an Osoko bilkura egingo da Bilbon, Udaletxean, goizeko  
10:00etatik aurrera. Egun horretan, Bilboko Udalak harrera egingo die eus-  
kaltzainei. Egun berean, orobat, Euskaltzaindiaren eta Frisiako Akademiaren  
artean lankidetzeta-hitzarmena izenpetuko da.

**5.4. Ipar Euskal Herria: euskal irakaskuntzari buruzko ekimena.** Frantziako Hezkuntza Ministerioak ezarri nahi duen kolegioen erreformak kezka sortu du Ipar Euskal Herriko euskarazko irakasleen artean. Horiek horrela, Zuzendaritzak adierazpen bat egitea onartu du. Adierazpena *Plazaberrin* eta Ipar Euskal Herriko zenbait hedabidetan argitaratu da.

**5.5. Euskaltzain urgazleak direla eta, Nafarroan bizi diren euskaltzain osoen idatzia.** S. Aleman, A. Iñigo, P. Salaberri eta P. Zabaleta euskaltzain osoek Zuzendaritzak aztertzeko idatzi bat igorri dute. Idatzi horretan, Nafarroan bizi diren euskaltzainek Zuzendaritzari eskatzen diote lurralde horretan ere urgazle berriak proposatzeko prozedura abian jartzea komeni dela eta, Araban erabilitako irizpideen arabera, izenda litezkeen bospasei hautagaien proposamena abian jartzea, betiere Nafarroako ezaugarriak kontuan izanik. Horiek horrela, Zuzendaritzak, 2015eko azaroaren 10ean eginiko bilkuran, bi erabaki hartu ditu: batetik, Nafarroan bizi diren euskaltzainekin biltzea, prozesuaren urratsak zehazteko; bestetik, honen berri Osoko bilkurari ematea.

## 6. Azken ordukoak.

**6.1. B. Oihartzabal euskaltzain osoaren egoeraren berri.** Berriki iktus bat izan du eta gorputzaren alde bat mugitu ezinda geratu da. Une honetan Kanbon dago, erietxe batean. Dituen osasun arazoei buelta emateak luze joko duela esan da.

**6.2. A. Arkotxa euskaltzain osoaren egoeraren berri.** Erorikoa izan du eta belauna gaizki dauka. Horiek horrela, onera etorri bitartean, etxean dago, medikuek hala aginduta.

**6.3. Nafar Telebistaren euskarazko katearen emankizuna abenduaren 3tik aurrera.** P. Zabaleta eta S. Aleman euskaltzainek jakinarazi dutenez, telebista hau euskaraz igortzen hasiko da abenduaren 3tik aurrera.

**6.4. EHUren omenaldia Koldo Mitxelenari.** J. Lakarrak jakinarazi duenez, EHUK omenaldia egingo dio Koldo Mitxelenari abenduaren 2an, arratsaldeko 18:30ean, unibertsitate honek Abandon duen egoitzan, Bizkaia aretoan. Era berean, abenduaren 3an eta 4an jardunaldia egingo da Gasteizen. Gauzak horrela, gonbita luzatu die euskaltzainei hurreratu daitezen.

Eta beste aztergairik ez dela, 12:50 direnean, Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria